

NETALGAE

WWW.NETALGAE.EU

| IES Mutriku BHI



Makroalgen Garapen Jasangarri Bat Promozionatzeko Sare Interregionala

Red interregional para la promoción de un desarrollo sostenible de las macroalgas

Itzasoko algen eskaera gero eta handiagoa da. Algen propietateei esker garrantzi handiagoa ari dira hartzen elikaduran, kosmetikan eta abar. Osagai naturala izanik, populazio naturalen ustiaketa jasangarria ezinbestekoa da algen akuakulturarekin batera. Europan algen ustiaketa nekazal inguruneetan ematen den jarduera da; biztanleak galtzen ari diren lurraldeak.

Ikaslan, Tknika eta Mutriku BHI, NETALGAE izeneko europar proiektuan ari dira lanean. Proiektu honen helburua algen ustiaketa jasangarria (ekonomia eta ingurumen aldetik) bultzatzea da, alga osagai nagusi bezala duten enpresen irtenbide jasangarria, ekonomiko eta soziala, bultzatuz.

Hiru urtetan zehar gauzatuko den proiektuaren helburua Europan mailan alga munduan ari diren partehartzaile guztientzat lan tresna bat eta informazioa eta esperientziak elkartrukatzeko gune bat lortzea da. NETALGAE proiektuan Europako gune atlantikoko bost herri parte hartzen dute: Norvegia, Eskozia, Frantzia, Portugal eta Euskal Herria.

Lehenengo pausua Europa osoan algen sektorearen gaur egungo egoera eta bilakaera ezagutzea da: Sektoreak historian izandako bilakaera, ustiatutako espezieak, ustiaketa guneak, algen erabilerak, enpresa kopurua eta aktibitatea, langile kopurua, langileen baldintzak, etorkizunerako proposamenak, sektorearen arazoak, legedia, etab. Datu guzti hauekin Europako Atlantiko isurialdeko algen sektorearen ikuspegi oso lortuko da algen kudeaketa jasangarri bat aurrera eraman ahal izateko (praktika onak, gomendioak, komertzializatorako irtenbideak, etab.).

Proiektuak Europa osoko sektorearen elkarlana praktikoa, teknologia transferentzia, garapen planak eta errentagarritasun jasangarria (ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez) ditu ardatz.

Proiektu honetan parte hartzera algekin lanean edota interesa duen guztiak daude gonbidatuta, hala nola: biltzaileak, transformatzaileak, teknologia hornitzaileak, aholkulariak, ikerketa zentroak, ingurugiroan adituak, garapen agentziak, gobernu lokalak eta beste interesatuak.

Partehartzaileak:

- IKASLAN, Mutriku BHI, Tknika (EH)
- Indigo Rock Marine Research Limited (IE)
- Bord lascaigh Mhara (IE)
- Syndicat Mixte pour l'Équipement du Littoral (FR)

La demanda de algas marinas es cada vez mayor. Gracias a sus propiedades, las algas están adquiriendo una importancia creciente en la alimentación, cosmética, etc. Se trata de un elemento natural, por lo que resulta necesaria una explotación sostenible de las algas, combinada con la acuicultura. En Europa, la explotación de las algas es una actividad que se da en zonas rurales, concretamente en aquellos territorios que sufren un proceso de despoblación.

Ikaslan, Tknika y Mutriku BHI trabajan en un proyecto denominado NETALGAE, cuyo objetivo es impulsar la explotación sostenible (tanto desde el punto de vista económico como medioambiental) de las algas, ofreciendo una solución sostenible, económica y social a empresas cuyo elemento principal sean las algas.

El proyecto se va a desarrollar a lo largo de tres años y tiene por objetivo convertirse en una herramienta de trabajo y en un foro de información e intercambio de experiencias a nivel europeo para todos aquellos agentes involucrados en el mundo de las algas. Cinco países del arco atlántico europeo participan en el proyecto NETALGAE: Noruega, Escocia, Francia, Portugal y Euskal Herria.

El primer paso es el conocimiento de la situación actual y de la evolución de las algas en toda Europa: evolución del sector a lo largo de la historia, especies explotadas, zonas de explotación, utilización de las algas, número de empresas y su actividad, personal empleado, condiciones laborales, propuestas para el futuro, problemas del sector, legislación, etc. Con todos estos datos, se espera lograr una perspectiva completa del sector de las algas de la vertiente atlántica de Europa, para poder llevar adelante una explotación sostenible de este recurso (buenas prácticas, recomendaciones, soluciones de comercialización, etc.).

El proyecto se articula en torno al trabajo práctico en común, la transferencia, los planes de desarrollo y la rentabilidad sostenible (tanto desde el punto de vista económico como ambiental) del sector en toda Europa.

Todo aquel que trabaje o esté interesado en el mundo de las algas está invitado a participar en este proyecto: recolectores, transformadores, proveedores de tecnología, asesores, centros de investigación, expertos medioambientales, agencias de desarrollo, gobiernos locales y demás personas interesadas.

Participantes:

- IKASLAN, Mutriku BHI, Tknika (EH)
- Indigo Rock Marine Research Limited (IE)
- Bord lascaigh Mhara (IE)



- Université de Bretagne Occidentale (FR)
- Agrocampus Ouest Centre de Rennes (FR)
- Bioforsk, Norwegian Institute for Agriculture and Environment Research (NO)
- Viking Fish Farms, Ardtoe Marine Laboratory (UK)
- Universidade do Algarve (PT)

Helburu nagusiak:

Proiektuak bi helburu nagusi ditu:

1) Europa mailan itsas algekin lan egiten duten sektorearen komunikazio sare bat sortzea. Sare horretan izango dira: produktoreak, prozesadoreak, teknologi hornitzaileak, aholkulariak, ikerketa zentroak, ingurumen adituak, garapen agentziak, gobernu lokalak eta komunitatea taldeak eta interesa duen edonor.

2) Ikerketa egin praktika onen modelo bat egiteko eta aholkuak emateko itsas makroalgen errekurtsuen garapen jasangarria lortzeko.

Lan plana:

1) Proiektuan parte hartzen duten herriko alga industriaren gaineko informazio bilketa: Algen inguruko informazio historikoa eta gaur egungoa jasoko da. Algen biltzetaren aktibitatearen deskribapena, biltzetan aritu diren eta aritzen diren enpresen informazioa (egoera, tamaina, garapena etab.), bilketa metodoa, algen bilketa/produkzioaren gune garrantzitsuen mapa, aktibitatearen enplegua eta balioa, publikazio teknikoaren bilketa (aholkularitza, zientifikoa, ingurumena...), algen bilketa eta produkzioaren partehartzaileen identifikazioa.

2) Algen erregulazioa, administrazioa eta kudeaketa sistemak: Azpisektoreari eragiten dioten legedi, administrazio, kudeaketa eta garapen arazoak.

3) Algen errekurtsuen garapen jasangarriko praktika onen gidaren garapena: Planak azpisektorearen garapen jasangarri eta errentagarri bat bilatzen du. Horretarako Europa mailako praktika onen gida bat eratzea ezinbestekoa da. Gida honek abarkatuko luke kudeaketa, administrazioa, babespena eta komertzializazioa.

4) Europa mailako algen industriaren datu basearen garapena: Proiektu honek parte hartzen duten herrialde guztietako alga industriaren arteko elkarlana bultzatzen du. Denentzat onuragarriak izan daitezkeen datu base sortzea garrantzitsua da. Datu basean sartuko lirateke parte hartzen duten agente guztiak: erregulatuak, garapen agentziak, ikertzaileak, hornitzaile komertzialak, aholkulariak, lobby taldeak eta zerbitzu hornitzaileak.

5) Europa mailako algen web orria eta lan erremintak: Lehenago aipatutako lan guztiaren emaitza azpisektorearen eskura egon behar du, horretarako tresna erabilgarria web orria da. Etengabe eguneratuko den web hau parte hartzen duten herrietako hizkuntza guztietan egongo da eta bertan lehenago aipatutako informazioaz gain, elkarlanerako tresna bat izango da, non antolatuko diren ikastaroen berri emango den, hornitzaileen datu basea egongo den etab.

6) Diseminazioa: Hiru urtetan jasotako informazio guztia zabaltzeko

7) Kudeaketa: Lan mardul guztiak kudeaketa maila handia eskatzen du. Horretarako arduradun nagusi bat izendatu da proiektua.

- Syndicat Mixte pour l'Équipement du Littoral (FR)
- Université de Bretagne Occidentale (FR)
- Agrocampus Ouest Centre de Rennes (FR)
- Bioforsk, Norwegian Institute for Agriculture and Environment Research (NO)
- Viking Fish Farms, Ardtoe Marine Laboratory (UK)
- Universidade do Algarve (PT)

Objetivos principales:

El proyecto tiene dos objetivos principales:

1) Crear una red de comunicación para el sector que englobe a todos aquellos agentes que trabajan con algas marinas. Esta red incluiría a: productores, procesadores, proveedores de tecnología, asesores, centros de investigación, expertos medioambientales, agencias de desarrollo, gobiernos locales y grupos comunitarios y demás personas interesadas.

2) Investigar para elaborar un modelo de buenas prácticas y para asesorar en la consecución de un desarrollo sostenible de los recursos de macroalgas.

Plan de trabajo:

1) Recopilación de datos sobre la industria de las algas del país participante en el proyecto: Se recogerá información histórica y actual sobre las algas, como descripción de la actividad de recolección, información sobre las empresas que se han dedicado y se dedican a esta actividad (situación, tamaño, desarrollo, etc.), método de recolección, mapa de las principales zonas de recolección/producción de algas, empleo y valor de la actividad, recopilación de publicaciones técnicas (asesoramiento científico, medioambiental...), identificación de los participantes en la recolección y producción de algas.

2) Sistemas de regulación, administración y gestión de las algas: Problemas legales, administrativos, de gestión y de desarrollo que influyen en el sector.

3) Desarrollo de una guía de buenas prácticas para el desarrollo sostenible de los recursos de algas: El plan busca un desarrollo sostenible y rentable del subsector, para lo cual es imprescindible la elaboración de una guía de buenas prácticas a nivel europeo, que abarque la gestión, la administración, la protección y la comercialización.

4) Desarrollo de una base de datos a nivel europeo de la industria de las algas: Este proyecto busca la cooperación entre la industria de las algas de todos los países participantes. Es importante la creación de bases de datos que sean beneficiosas para todos, en las cuales se incluiría a la totalidad de los agentes participantes: reguladores, agencias de desarrollo, investigadores, proveedores comerciales, grupos de presión y proveedores de servicios.

5) Página web y herramientas de trabajo a nivel europeo: El fruto de todo el trabajo anteriormente expuesto ha de estar a disposición del subsector, para lo cual la página web es un instrumento sumamente útil. Esta página web deberá estar permanentemente actualizada, se editará en todas las lenguas de los países participantes y, además de servir para la difusión de la información anteriormente mencionada, será también un instrumento de cooperación que informe de los cursos que se organicen, que ofrezca una base de datos de proveedores, etc.

6) Difusión: Divulgación de la información recogida durante tres años.

7) Gestión: Todo este ingente trabajo exige un gran nivel de gestión, para el cual se nombrará a un responsable principal del proyecto.